

## 13/2019 UDALEKO OSOKO BILKURA

### 2019KO URRIAREN 18AN IZANDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

#### BERTARATUTAKOAK:

##### ALKATEA

Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

##### ZINEGOTZIAK:

Saioa Tolosa Zubelzu (EH Bildu taldea)

Esther Iztueta Zelaia (EH Bildu taldea)

Jokin Tolosa Zabala (EH Bildu taldea)

Rafael Uribarren Axpe (EAJ taldea)

Aitzol Arocena Zufiria (EAJ taldea)

Agurtzane Nuñez Yarza (EAJ taldea)

Nuria Carbonell Miranda (EAJ taldea)

##### IDAZKARIA:

Itziar Azurza Sorrondegui

Anoetako udaletxean, 2019ko URRIAREN 18an eguerdiko hamabietan, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko ez ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M<sup>a</sup> Estanga Lasa alkatearen lehendakaritzapean, eta Itziar Azurza Sorrondegui andrea aritu da idazkari lanetan.

Amaia Urkola Arozena, Aitzol Esnaola Zubeldia eta Jaime Peon Ormazabal zinegotziak ez dira etorri.

#### 1.- KATALUNIAKO EPAIAZ ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Gai-zerrendaren ordena aldatu egin da, eguerdiko hamabietan, Pleno Aretoan elkartu beharrean Udaletxeko arkupetan udalbatza elkartu da, Idazkariaren aurrean, Kataluniako epaiz, ondorengo adierazpen instituzional bateratu bat irakurtzea adostuz eta aho batez onartuz:

##### “KATALUNIAKO EPAIAZ ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

1. ANOETAKO Udalak ziurtatzen du demokraziaren adierazpen baketsua, indibiduala zein kolektiboa gauzatzea eta herriari hitza ematea ez dela delitua. Hori horrela, urriaren 1eko erreferenduma tresna demokratiko eta zilegizkoa izan zela, eta Kataluniak eta Euskal Herriak berezkoa dutela etorkizuna erabakitze eskubidea.
2. ANOETAKO Udalak argi eta garbi adierazten du ezin direla justifikatu Espainiako Auzitegi Gorenak eta Estatuko botereek Kataluniako agintari eta gizarte eragileei bizkarreratutako auzia eta ezarritako zigorrak.
3. ANOETAKO Udalak nabarmentzen du Kataluniako ‘Procés’-aren aurkako auziak eta epaiak Zuzenbide Estatuaren itxuragabetzea dakartela eta ezbaian jartzen dutela espainiar demokraziaren homologazioa nazioartean.
4. ANOETAKO Udalak azpimarratzen du euskal herritarrei zuzenean eragiten digula Estatu espainiarraren erantzun bortitzak, izan ere, herrien borondatea era demokratiko eta baketsuz erabakitzea mozten du. Eta arazo politikoari tribunalen indarrez, 155. artikulua ezarpenez edo erabakitze eskubidearen alde egiten

dutenei edonolako neurri bidegabeak ezarriz erantzuten dio, irtenbide elkarrizketatu eta negoziatua bilatu ordeztu eta herriari galdetu beharrean.

5. ANOETAKO Udalak Estatuko botereei eskatzen die, espetxean dauden preso politikoak berehala aske utzi ditzala eta, era berean, erbesteratu politikoen aurkako auzibideak bertan behera utzi ditzala.
6. ANOETAKO Udalak elkartasuna adierazten die Kataluniako preso eta erbesteratu politikoei nahiz haien etxekoei, hala nola, Kataluniako herriari eta erakundeei, eta anoetako herritarrei dei egiten die bat egin dezaten herriari hitza ematearen aldeko ekimen baketsuekin, demokraziaren eta askatasunaren alde”.

## **2.- DIPUTATUEN BILTZAR ETA SENATURAKO HAUTESKUNDEKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA**

2019ko azaroaren 10ean ospatuko den Diputatuen Biltzar eta Senaturako Hauteskundeetako espedientea ikusirik.

Hauteskundetarako Lege Organiko Orokorren 26. artikulua dioenaren arabera, hauteskunde-mahaietako kideen izendapena Udaletxetako Udaltzaretan egindako zozketa publiko bidez egin behar da.

Bi hauteskunde-mahaietako kideak izendatzeko zozketa publikoa egiten da, ondorengo suertatuz:

### **. A MAHAIA**

#### Mahaiburua:

- Titularra: Gorka BLANCO IRAOLA (hautesle zkia. 302 )
  - 1. ordezkoa: Ana Isabel COLLAZO DAVILA (381)
  - 2. ordezkoa: M<sup>a</sup> Izaskun ASURABARRENA HERNANDEZ (226)

#### 1. Bokala:

- Titularra: Aitor AYESTARAN ZABALA (235)
- 1. Ordezkoa: Iban BERBEL SAROBE (296)
- 2. Ordezkoa: Bittor EGUREN TOLEDO (454)

#### 2. Bokala:

- Titularra: M<sup>a</sup> Pilar ALONSO DE LA FUENTE (064)
- 1. Ordezkoa: Jose Antonio ARIKARTE MORENO (187)
- 2. Ordezkoa: Angel ITURRIOZ MENDIZABAL (788)

### **. B MAHAIA**

#### Mahaiburua:

- Titularra: Igor URKOLA AGIRREURRETA (583)
- 1. Ordezkoa: Jokin TOLOSA ZABALA (547)
- 2. Ordezkoa: Vicente OQUINA ARTANO (264)

#### 1. Bokala:

- Titularra: Guadalupe MIGUEZ ALVAREZ (181)
- 1. Ordezkoa: Maria DE PEDRO SAN SEBASTIAN (345)
- 2. Ordezkoa: Joaquin REZOLA ARTOLA (399)

#### 2. Bokala:

- Titularra: Angel M<sup>a</sup> PEÑAGARIKANO LABAKA (356)
- 1. Ordezkoa: Xabat URKOLA ETXABE (594)
- 2. Ordezkoa: Xabat UGARTEMENDIA AZURMENDI (559)

Eta beste aztergairik ezean, alkate jaunak amaitutzat eman du bilkura, eguerdiko hamabiak eta hogeirenean; honetaz guztiaz, nik, idazkariak, fede ematen dut.